



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2016/10/04

Bizkaiko Batzar Nagusiek Mendietako ontziolea "sendotzea" eskatu dabe, jausi ez daiten

Bizkaiko Batzar Nagusietako Euskera eta Kultura batzordeak eskaria egin dau gaur Foru Aldundiak Mendietako erriberako ontziolaren (Lekeitio) egiturak jausi ez daitezcan "sendotzeko" lanen finantziazioan parte hartu daian. Talde Mistoak aurkeztu dauen arauz besteko proposamenak Bizkaiko Batzarretako talde guztien aldeko eretxia jaso dau. Batzarretako taldeek, akordio hori Lekeitioko Udalagaz, Eusko Jaurlaritzagaz eta Kosta Demarkazioagaz koordinatuta egin daitela eskatu dabe.

Bizkaiko ordezkariak "arduratuta" agertu dira XIX. mendearen amaieran eregi eta 1918an berreregi zan egurrezko ontziolaren egoera "txarra" dala eta. Ontziola Kultur Ondarearen inbentarioan jasota dago, monumentu kategorian. Ekimena aurkeztu dauen Arturo Aldecoak esan dauenez, egiturak "preminazko" esku-hartzea behar dau, prebentzino neurri moduan, bere legezko egoera argitu aurretik (esku pribaduetan dago, Estaduaren administrazio emakida bat dala eta) eta horren ostean neurriak ezarri beharko dira, behin betiko barriztetako eta balioan jarteko.

80.000 EURO IKUSKIZUN ESZENIKOEN SUSTAPENERAKO

Lorea Bilbao Euskera eta Kultura diputatu andreak saio berean adierazo dauenez, hurrengo aurrekontuetan Foru Aldundiak barrero sartuko dau ikuskizun eszenikoen sustapenerako emoten zan 80.000 euroko diru-laguntzinoa. Partida hori lurraldeko kontuetatik kendu zan 2016an, Foru Aldundiko Kultura sailaren eretxiz holango diru-laguntzinoak emoteko orduan sektoreagaz gogoetarako epealdia zabaldu behar zala ulertu ebalako. Bilbaok esan dauenez, bere sailak partidea berreskuratu egingo dau, "horren eragina jasoten dabenakaz adostasuna" lortu dalako.

Batzarretako talde guztiak neurri horren alde agertu dira, eta, gainera, diru-laguntzinoa barrero indarrean jartea eskatzen eban Podemos Bizkaia taldearen arauz besteko proposamenaren alde be egin dabe. Elsa Pamparacuatro talde moreko batzordekidea pozik agertu da, sorkuntza eszenikoan dabilzen enpresa txikiak eta ertainek euren ikuskizunak zabaltzeko eta ezagutuarazoteko dituen gastuak bete ahal izango dituelako.

UNIBERSIDADEKO IKASGELAK DANTZETARAKO

Batzordeak, Batzarretako talde guztien aldeko eretxiagaz, baita be, talde morearen arauz besteko proposamena onartu dau, Aldundiari eskaria egiteko, Bizkaiko Dantza Etxearen bitartez "akordioa" lortu daian Euskal Herriko Unibersidadeagaz, unibersidadeko antzokia eta dantzako ikasgelak, "halan eskatzen daben Bizkaiko antzerki, dantza eta musika taldeek erabilteko moduan egon daitezcan".

Puntu horretan, Pamparacuatrok esan dauenez, Leioako campusean dantzarako ikasgelak dagoz, baina "oso gitxi erabilten dira", eta horrez aparte, "bizitza gehiago izan beharko leuken



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

antzokia” be badago. Kultur arloko sorkuntzak eta ekoizpenak eragiten dituan “gastuak murrizteko” balioko dabe.

Ekimena gauzatzeko beharrezkoa izango litzateke erakunde bakotxaren eskumenak errespetauko leukezan “akordioa” lortzea, talde guztiek autortu dabenez. EAJ/PNVren eretziz, kontuan izan beharko da UPV/EHUK bere programazioa daukala, eta programazio horren barruan aitatutako espazioen erabilerarako beharrak sartzen dirala, eta gehiago oraindino aurreko ikasturtean Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantza Goi Eskolea martxan jarri ostean, Celia Gómez batzordekideak gogoratu dauenez.

EZEZKOA UDAL ESPAZIOAK LAGATZEARI

Podemos taldearen beste ekimen batek, barriz, ez dau emaitza bera lortu. Proposamen horretan, “Bizkaiko antzerki, dantza eta musika taldeek eta profesional ez diranek” udal antzokien programazioetan lekua izatea eskatzen zan. Talde morearen eskarian, udal antzokiek foru diru-laguntzinoak jaso ahal izateko Aldundiak baldintza hori ezartea eskatzen zan. Proposamenak EH Bilduren aldeko botoa baino ez dau lortu.

Bizkaiko Batzarretako gainerako taldeak, udal egoitzei euren espazioak lagatzera behartzearen kontra agertu dira, EAJ-PNV, PSE-EE, PP eta Talde Mistoaren ustez, ez dalako kontuan izan neurri horrek Udaletan eragingo leuken kostua eta, gainera, udalen eskumenetan “sartzea” izango litzateke, eta horrek “helegiteak” jartea be eragin ahal izango leuke, Juan Otermin sozialistak esan dauenez.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
04/10/2016

Juntas Generales de Bizkaia pide que se "apuntale" el astillero de Mendieta para evitar su desplome

La Comisión de Euskera y Cultura de las Juntas Generales de Bizkaia ha pedido hoy que la Diputación foral participe en la financiación del "apuntalamiento" de las estructuras del astillero de ribera de Mendieta (Lekeitio) para evitar su desplome. Una proposición no de norma presentada por el grupo Mixto ha contado con el apoyo unánime de los grupos de la Cámara vizcaína que reclaman que dicho acuerdo se ejecute en coordinación con el Ayuntamiento de Lekeitio, el Gobierno Vasco y la Demarcación de Costas.

Los representantes vizcaínos se han mostrado "preocupados" por la "mala" situación del astillero de madera construido a finales del siglo XIX y reconstruido en el año 1918, el cual está incluido en el inventario del Patrimonio Cultural con categoría de monumento. Arturo Aldecoa, proponente de la iniciativa, ha señalado que su estructura requiere de una intervención "urgente" como medida preventiva antes de que se resuelva su situación legal (en manos privadas por una concesión administrativa del Estado) y se establezcan medidas posteriores para su restauración definitiva y puesta en valor.

80.000 EUROS PARA PROMOCIÓN DE ESPECTÁCULOS ESCÉNICOS

En la misma sesión, la diputada de Euskera y Cultura, Lorea Bilbao, ha anunciado que la Diputación presentará en los próximos presupuestos la reposición de la subvención de 80.000 euros que se concedía para la promoción de espectáculos escénicos. Dicha partida fue eliminada en 2016 de las cuentas del territorio al entender el área foral de Cultura que debía abrirse un periodo de reflexión con el sector a la hora de otorgar este tipo de subvenciones. Bilbao ha señalado que su departamento recuperará dicha partida una vez que la misma ha sido "consensuada ya con los afectados".

La medida ha sido apoyada por todos los grupos junteros de la Cámara que han avalado también una proposición no de norma de Podemos Bizkaia que apostaba por recuperar dicha subvención. La apoderada de la formación morada Elsa Pamparacuatro se ha congratulado con la idea de que las pequeñas y medianas empresas que se dedican a la creación escénica, puedan cubrir los gastos de difusión de sus espectáculos.

AULAS UNIVERSITARIAS PARA DANZAS

La Comisión ha aprobado también con el apoyo de todos los grupos junteros una proposición no de norma del grupo morado en la que se insta a la Diputación a que, a



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

través de Bizkaiko Dantza Etxea, se llegue a un “acuerdo” con la Universidad Pública Vasca para que tanto el teatro universitario como las aulas de danza, “estén disponibles para las compañías de danza, teatro y circo que lo soliciten”.

En este punto, Pamparacuatro ha asegurado que en el campus de Leioa existen unas aulas preparadas para la danza, que están “infrautilizadas”, a las que se suma un teatro que “merece la pena que tenga vida”. Servirán para “rebajar los gastos” que suponen la creación y producción cultural.

La puesta en marcha de dicha iniciativa debe llegar fruto de un “acuerdo” que respete los ámbitos competenciales de cada uno, han coincidido los grupos junteros. EAJ/PNV ha considerado que se deberá de tener en cuenta que la UPV/EHU cuenta con su propia programación que incluye unas necesidades de uso de esos espacios, más si cabe después de que arrancara el curso pasado la Escuela Superior de Arte Dramático y Danza de Euskadi, ha apuntado la apoderada Celia Gómez.

NO A LA CESIÓN DE ESPACIOS MUNICIPALES

En cambio, no ha tenido tanta suerte otra iniciativa del Podemos en la que se solicitaba que las compañías “vizcaínas o amateurs de teatro, danza y música”, tuvieran sitio en las programaciones de los teatros municipales. El grupo morado quería que la Diputación estableciera esta condición para que los teatros municipales pudieran acceder a subvenciones forales. La propuesta sólo ha contado con el apoyo de EH Bildu.

El resto de grupos de la Cámara vizcaína se ha mostrado en contra de que se obligue a los recintos municipales a ceder sus espacios. PNV, PSE-EE, PP y Mixto creen que no se ha tenido en cuenta el coste que supondría esta medida para los ayuntamientos, además de que supondría una “intromisión” en las competencias municipales que podría ser incluso "recurrída", ha advertido el socialista Juan Otermin.